

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

2040

93/2025 DEKRETUA, apirilaren 29koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzen dituena.

Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen VI. tituluak zuzenbide pribatuko ente publiko gisa eratzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa, eta ente horren xedea da lan duina izateko eskubidea erabat garatzen laguntzea eta langileen enplegarritasuna bermatzen, enpresen eskakizunei egokitutako langile-premiak asetzen eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzen efizientziaz lagunduko duen lan-merkatua eratu dadin erraztea.

Aipatu legean eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean zuzenbide pribatuko ente publikoentzat ezarritakoaz gain, bere estatutuetan xedatutakoa ere betetzen du.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzeak haren araubide juridikoaren definizioa osatzen du. Izan ere, estatutuok onartuta, gobernu-organoen eginkizunak, osaera eta izendapenez gain, entearen zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala eta haren funtzionamendu-araubidea garatzen dira, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legeak 95. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Estatutuak onartzeak, azken batean, entearen funtzionamendu optimoa lortzeko balio du. Horretarako, egitura bat zehazten da, batetik, bere dualtasun funtzionala islatzeko –enplegu-zerbitzu publiko gisa eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak kudeatzeko entitate gisa–, eta, bestetik, 3/2022 Legearen 11. artikuluan babesten diren printzipioak sakontzeko: hierarkia, sinpletasuna, antolaketaren argitasuna, subsidiaritasuna, egituraren egokigarritasuna eta gardentasuna.

Orain onartzen diren estatutuek Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legea eta Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legea era egokian ezartzea dute xede.

Ez dute ahazten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak metatu duen esperientzia, zuzenbide pribatuko ente publiko moduan sortu zenetik, Euskal Autonomia Erkidegoko 2010eko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 2/2009 Legearen bidez. Ondoren, organismo autonomo bihurtu zen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez, eta aipatu legeen zioz haren estatutuak onartu ziren (azaroaren 30eko 329/2010 Dekretua eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretua), zeinek entearen funtzionamendua arautu baitute, gaur egun arte.

Hau da, esperientzia eta egungo eta etorkizuneko erronketarako prestakuntza eragile garrantzitsuak izan dira pertsonen eta enpresei zerbitzu hobea eskaintzeko diseinatutako egitura bat zehazteko.

Estatutu hauek administrazio-kontseiluaren eremu funtzional bat artikulatzen dute, zuzenbide pribatuko ente publikoaren helburuen definizio estrategikoan, plangintzan, ebaluazioan eta egituraren zentratua, zuzendaritza- eta kontrol-organo gorena den aldetik (Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 93.2 artikulua). Entearen ohiko zuzendaritzak (aipatu legearen 93.3 artikulua) arabera, zuzendaritza nagusiak hartzen du bere gain proposamenak egiteko duen eginkizuna ahaztu gabe, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaritza-organoen eginkizunak zehazten ditu.

Zuzendaritza exekutiboek, zuzendaritza nagusiaren mende, erakundearen kudeaketa-aginteaosatzen dute, eta horren osagarri, laguntza-zerbitzuak daude, zuzendaritza- eta kudeaketa-organoei aholkularitza, informazioa eta laguntza ematen dietenak.

Tokiko enplegu-bulegoak pertsoneri eta enpresei arreta zuzena emateko zerbitzu-unitateak dira, enpleguko lurralde-bulegoek zuzentzen eta koordinatzen dituztenak.

Azken finean, egitura hierarkiko koordinatu, moldagarri eta hurbila sortu da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak esleituta dituen zerbitzuen hartzailerak diren pertsona, enpresa eta gainerako entitateentzat.

Ondorioz, bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuaren proposamenez, bat etorritik Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko apirilaren 29an egindako bilkuran gaia aztertu eta onartu ondoren, hauexek:

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Estatutuen onarpena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuak onartzen dira, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 95. artikuluan xedatutakoa garatzeko, dekretu honen eranskin gisa agertzen den testuaren arabera.

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA.— Jardueren hasiera.

1.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoa dekretu hau indarrean jartzen den egunean hasiko da jardunean, eta egun horretan bertan azkenduko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoa, bat etorritik Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen bosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoarekin.

2.— Dekretu hau indarrean jartzen denean, administrazio-kontseilua eratzeko prozedura hasiko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuetako 6. artikulutik 9. artikulura ezarritakoaren arabera.

3.— Halaber, egun berean, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoaren zuzendaritza-organismoetako titularrek beren karguak utziko dituzte, eta zuzenbide pribatuko ente publikoaren zuzendaritza exekutiboaren titularrak izendatuko dira, bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoaren arabera.

4.— Zuzenbide pribatuko ente publikoaren gobernu-, zuzendaritza- eta kudeaketa-organismoak eratzen direnetik aurrera, langileen egiturak eta antolaketa behar dituzten akordioak hartu ahal izango dira, bidezkoak diren negoziazio kolektiboko prozeduren arabera.

Zehazki, dekretu hau indarrean egongo den lehen urtean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko lehen lanpostu-zerrenda onartzeko lanak egingo dira.

BIGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.— Egiteke dauden eragiketak.

Baimena ematen zaie Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaritza nagusiari eta zuzendaritza exekutiboari, bai eta Ogasun eta Finantza Saileko dagokien organoei ere, izapidetzen jarrai dezaten, amaitu arte, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoa benetan azkentzen den egunean oraindik izapidetu gabe dauden espedienteak eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioko eragiketak, Ogasun eta Finantza Saileko organo eskudunek zehazten dituzten irizpideei jarraikiz.

HIRUGARREN XEDAPEN GEHIGARRIA.– Arau-aipamenak.

Beste xedapen batzuetan Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua organismo autonomoari buruz dauden arau-aipamenak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoari buruz egindakotzat hartuko dira.

LEHENENGO XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zuzendaritza nagusiaren titularraren izendapenari aplikatu beharreko araubidea.

Dekretu hau indarrean sartzean Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendaritza nagusiaren titulartasuna duen pertsonak kargu horretan jarraituko du, eta ez da beharrezkoa izango beste izendapen bat egitea, estatutuen 13.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Nolanahi ere, estatutuen 13.3 artikuluan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaio.

BIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Zuzendaritza exekutiboei aplikatu beharreko araubidea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaritzako lanpostuak antolatzeko tresna onartzen ez den bitartean, zuzendaritza exekutiboei Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuen 12.2 artikuluan aurreikusitako araubidea aplikatuko zaie (estatutu horiek maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onartu ziren), Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 99. artikuluan, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legean eta hura garatzen duten arauetan xedatutakoaren arabera.

HIRUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Administrazio-kontseiluari aplikatu beharreko araubidea.

1.– Dekretu hau indarrean jartzean eratuta dagoen administrazio-kontseiluak estatutuen 11. artikuluan aurreikusitako eginkizunak beteko ditu, salbu eta e) eta f) letretan aipatutakoak, zuzenbide pribatuko ente publikoaren administrazio-kontseilua eratu arte.

2.– Estatutuen 12. artikuluan xedatutakoaren arabera jardungo du.

LAUGARREN XEDAPEN IRAGANKORRA.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren egoitza elektronikoa sortu bitartean aplikatu beharreko araubidea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egoitza elektronikorik ez duen bitartean, helbide elektronikoa honetan argitaratuko dira eta jarriko dira eskuragarri Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren egoitza nagusiaren eta bulegoen zerrenda eguneratua, kokapen geografikoa eta harremanetarako datuak: <https://www.lanbide.euskadi.eus/inicio-lanbide/>

Apartatu honetan ezarritakoak ez du eragotziko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikoa argitaratu beharreko informazioa, bat etorritik Herritarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakoarekin.

2.– Lehen apartatuan aipatzen den aldian, <https://www.lanbide.euskadi.eus/lanbide-hasiera/> helbide elektronikoa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikorekin lotuko da.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak onartzen dituen, hargatik eragotzi gabe xedapen iragankorrean xedatutakoa, aipatu dekretuaren bidez onartutako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuen 12.2 artikuluari dagokionez.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA.– Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren aldaketa.

Bat.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren izenburua, eta honela idatzita geldituko da: Euskal Autonomia Erkidegoan lanerako prestakuntza antolatzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretua.

Bi.– Aldatu egiten da Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegurako Lanbide Heziketa arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuaren 14. artikulua, eta honela idatzita geldituko da:

«14. artikulua.– Lanerako Prestakuntza Erakundeen Euskal Erregistroa.

Lanerako Prestakuntza Erakundeen Euskal Erregistroa sortu da. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatuko du, eta bertan akreditatuta edo inskribatuta egon beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako instalazio eta prestakuntza-baliabideak dituzten prestakuntza-entitateak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak arlo honetan duen eskumena gorabehera».

Hiru.– Euskal Autonomia Erkidegoan lanerako prestakuntza arautzen duen maiatzaren 31ko 82/2016 Dekretuan enplegurako lanbide-heziketari buruz jasotzen diren erreferentziak lanerako prestakuntzari buruzko erreferentziak direla ulertu beharko da.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA.– 152/2023 Dekretuaren aldaketa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa).

Bat.– Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 7. artikuluko lehen paragrafoa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«7. artikulua.– Aurrekontu-zuzkidura.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuek zehazten duten organoaren erabaki baten bidez, urtero ezarriko da atal honetan araututako laguntzak finantzatzera bideratuko diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa».

Bi.– Aldatu egiten dira 152/2023 Dekretuaren 8.2 artikuluko lehen apartatua eta lehen paragrafoa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko dira:

«8. artikulua.– Laguntzak emateko prozedura. Ebazpena.

1.– Aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira eskabideak, kontuan hartu gabe lerro bateko edo besteko dirulaguntzetarako diren, eta laguntzak ordenan emango dira, dagokien espedientea osatzen den unearen arabera, harik eta aurrekontu-zuzkidura amaitu arte.

2.– Aurrekontu-kreditua agortzen bada, EHAAn emango da horren berri».

Hiru.—Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 27. artikulua (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«27. artikulua.— Deialdia.

Atal honetan jasotako dirulaguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuek zehazten duten organoaren erabaki baten bidez egingo da, eta, hartan, alderdi hauek zehaztuko dira gutxienez: finantzaketarako baliatuko diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa, eskabideak aurkezteko epea eta dirulaguntza justifikatzeko epea».

Lau.—Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 39. artikuluko lehen paragrafoa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«39. artikulua.— Deialdia.

Lehen azpiatal honetan jasotako dirulaguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuek zehazten duten organoaren erabaki baten bidez egingo da, eta, hartan, alderdi hauek zehaztuko dira: finantzaketarako baliatuko diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa eta eskabideak aurkezteko epea».

Bost.—Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 48. artikuluko lehen paragrafoa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«48. artikulua.— Deialdia.

Bigarren azpiatal honetan jasotako dirulaguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuek zehazten duten organoaren erabaki baten bidez egingo da, eta, hartan, alderdi hauek zehaztuko dira: finantzaketarako baliatuko diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa, zer alditan izan dezaketen dirulaguntza baliabide horien kargura diruz lagunduko diren inbertsioek, eskabideak aurkezteko epea, eta dirulaguntza justifikatzeko modua eta epea».

Sei.—Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 50.1 artikulua (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«50. artikulua.— Dirulaguntza emateko prozedura. Ebazpena.

1.—Aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira eskabideak, eta ordenan ebatziko, dagokion espediente osatzen den unearen arabera, harik eta finantzaketarako funtsak agortu arte.

Aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, horren berri jakinaraziko da EHAA-n argitaratuz, eta ebazteke geratu diren eskaerei dirulaguntzak ukatuko zaizkie».

Zazpi.—Aldatuegitenda 152/2023 Dekretuaren 57. artikuluko lehen paragrafoa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«57. artikulua.— Deialdia.

Azpiatal honetan jasotako dirulaguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuek zehazten duten organoaren erabaki baten bidez egingo da, eta, hartan, alderdi hauek zehaztuko dira: finantzaketarako baliatuko diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa, eskabideak aurkezteko epea, eta dirulaguntza justifikatzeko epea eta horretarako nahitaezko dokumentazioa».

Zortzi.— Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 59.1 artikulua (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«59. artikulua.— Dirulaguntza emateko prozedura. Ebazpena.

1.— Aurkezten diren hurrenkeran aztertuko dira eskabideak, eta ordenan ebatziko, dagokion espedientea osatzen den unearen arabera, harik eta finantzaketarako funtsak agortu arte.

Aurrekontu-zuzkidura agortzen bada, horren berri jakinaraziko da EHAA n argitaratuz, eta ebazteke geratu diren eskaerei dirulaguntzak ukatuko zaizkie».

Bederatzi.— Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 64. artikuluko lehen paragrafoa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«65. artikulua.— Deialdia.

Azpiatal honetan jasotako dirulaguntzen deialdia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuek zehazten duten organoaren erabaki baten bidez egingo da, eta hartan, alderdi hauek zehaztuko dira gutxienez: eskabideak aurkezteko epea, finantzaketarako baliatuko diren baliabide ekonomikoen zenbatekoa, eta dirulaguntza justifikatzeko epea eta horretarako beharrezkoa den dokumentazioa».

Hamar.— Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 73. artikulua (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«73. artikulua.— Kudeaketa, ebazpena eta publizitatea.

1.— Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan laneratzearen arloko eskumena duen zuzendaritzak kudeatuko ditu dekretu honetan araututako laguntzak.

Laguntzak ebazteko organo eskuduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuek zehazten dutena izango da.

2.– II. kapituluko 2. atalean –Enplegu lagunduko jarduketetarako laguntzak– eta 3. ataleko 4. azpiatalean –Lanbide-jardueran laguntzeko unitateentzako laguntzak– araututa dauden laguntzei dagokienez, ebazpena Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-taula elektronikoa argitaratuz jakinaraziko da: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>

Gainerako laguntzei dagokienez, eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak (jakinarazpenak barne) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira (<https://www.euskadi.eus/micarpeta>), eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren egoitza elektronikoa.

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango da, <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak> helbidean, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren egoitza elektronikoa.

3.– Xedapen honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun diren pertsonen eta entitateen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, bai eta jaso dituzten zenbatekoak ere, eta, entitate bati emandako dirulaguntza aldatzea erabaki bada, hori ere adieraziko da.

4.– Laguntzak ordaindu ahal izateko, pertsona edo entitate onuradunak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren arloan eskumena duen zuzendaritzako hirugarrenen datu-basean agertu beharko du.

Pertsona edo entitatea ez badago erregistratuta edo datu-base horretan dauden banku-datuak aldatu nahi baditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren egoitza elektronikoa argitaratuko den inprimakia bete beharko du».

Hamaika.– Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 79. artikulua bigarren paragrafoa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«79. artikulua.– Europako Gizarte Funtsak lagundutako finantzaketa.

Laguntzen deialdiak onartzen dituzten edo haien finantzaketarako baliabide ekonomikoak esleitzen dituzten erabakietan zehaztuko da zer programa operatibo jakin finantzatuko den Europako Gizarte Funtsak lagunduta, eta, hala badagokio, baterako finantzaketa horretatik eratorritako betekizunak edo baldintza espezifikoak ezarriko dira».

Hamabi.– Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 85.2 artikulua bigarren paragrafoa (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«85. artikulua.– Erregistroaren izaera juridikoa eta atxikipena.

2.– Aipatutako erregistroa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari atxikitzen zaio, estatutuetan zehazten den zuzendaritzaren bitartez, eta zuzendaritza horrek izango du erregistroaren antolaketaren, kudeaketaren eta funtzionamenduaren ardura».

Hamahiru.– Aldatu egiten dira 152/2023 Dekretuaren 90. artikulua 1. eta 2. apartatuak, ezabatu egiten da 4. apartatua eta berriz zenbakitzen dira hurrengo apartatuak (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«90. artikulua.– Prozedura izapidetzea eta ebaztea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan laneratzearen arloko eskumena duen zuzendaritzari dagokio eskabidea izapidetzeko eta enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa emateko ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatze beharrezko diren jarduketak egitea.

2.– Enplegu-zentro berezi gisa kalifikatzeari eta, hala badagokio, inskribatzeari buruz ebazteko eskumena Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan laneratzearen arloko eskumena duen zuzendaritzako titularrarena izango da.

Ebazpenak xehetasunez zehaztuko du zer lan-zentrori dagozkion edo dagozkien enplegu-zentro bereziaren kalifikazioa eta inskripzioa, eta, hala dagokionean, gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziaren izaera».

Hamalau.– Aldatu egiten da 152/2023 Dekretuaren 93. artikulua 2. apartatua, eta ezabatu, 4. apartatua (152/2023 Dekretua, urriaren 17koa, zeinaren bidez arautzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan desgaitasuna duten pertsonen enplegarritasunarekin loturiko programak eta zerbitzuak eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa). Honela idatzita geldituko da:

«93. artikulua.– Deskalifikatzea eta erregistroan ezeztatzea.

2.– Deskalifikazio-prozedura alde batek eskatuta edo ofizioz hasiko du kalifikaziorako eta inskripziorako eskumena duen organoak.

Deskalifikazio-prozedura ofizioz hasitakoan, eraginpeko enplegu-zentro bereziari jakinaraziko zaio, jakinarazpena jaso denetik 15 egun balioduneko epean, egokitze jotzen dituen alegazioak aurkeztu ditzan.

Epe hori amaituta, eta aurkeztutako alegazioak baloratu ondoren, laneratzearen arloan eskumena duen zuzendaritzak deskalifikazio-ebazpena emango du».

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA.– Garapena.

Eusko Jaurlaritzan enpleguaren gaineko eskumena duen saileko titularrari ahalmena ematen zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren estatutuen 11.k), 14.2.e) eta f), eta 18.1.c) eta d) artikuluetan aurreikusitako muga ekonomikoak aldatzeko, administrazio-kontseiluaren txostenaren ostean.

AZKEN XEDAPENETAKO LAUGARRENA.– Funtzionarioen atxikipena eta lan-kontratuko langileen subrogazioa zehaztea.

Eusko Jaurlaritzan enplegu publikoaren arloko eskumena duen sailburuari ahalmena ematen zaio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari atxikiko zaizkion funtzionarioen zerrenda zehazteko, bai eta subrogatuko den langile lan-kontratudunena ere. Zerrenda hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, eta jarduerak hasten diren egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

AZKEN XEDAPENETAKO BOSGARRENA.— Indarrean jartzea.

Dekretu hau 2025eko ekainaren 1ean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko apirilaren 29an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,
MIGUEL TORRES LORENZO.

ERANSKINA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA

IZAERA, ATXIKIPENA, EGOITZA ETA ARAUBIDE JURIDIKOA

1. artikulua.– Izaera, atxikipena eta egoitza.

1.– Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoa da, eta izaera juridiko propioa eta bere xedeak betetzeko eskumen osoa dauka.

2.– Eusko Jaurlaritzan enpleguaren gaineko eskumena duen sailari atxikita dago, sail horren sailburuaren bidez. Azken hori arduratzen da zuzendaritza estrategikoaz, goi-mailako zuzendaritzaz, eta irizpenak ebaluatu eta kontrolatzeaz, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 58. artikuluen 1. eta 2. paragrafoetan aurreikusitako baldintzetan.

Sailburuak aurreko paragrafoan aipatzen diren eskumenak eskuordetu ahalko dizkio arlo horretan eskumena duen sailburuordetzako titularrari.

3.– Vitoria-Gasteizen du egoitza nagusia, baina Euskal Autonomia Erkidegoko beste udalerririk batzuetan ere ezar ditzake bulegoak, baldin eta beharrezkoa bada aginduta dituen zerbitzuak behar bezala ematen direla bermatzeko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren egoitza elektronikoak argitaratuko ditu egoitza nagusiaren eta bulegoen zerrenda eguneratua, kokapen geografikoa eta harremanetarako datuak, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren egoitza elektronikoan argitaratu beharreko informazioa, ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuan xedatutakoaren arabera (91/2023 Dekretua, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

2. artikulua.– Araubide juridikoa.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legean, estatutu hauetan eta, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan txertatutako zuzenbide pribatuko ente publikoei aplikagarri zaien heinean, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoa beteko du.

2.– Hirugarren pertsona fisiko eta juridikoekiko harremanetan eta bere jardueraren garapenean, oro har, zuzenbide pribatua beteko du.

Administrazio-zuzenbideari jarraituko dio bai administrazio-ahalak betetzeko, bai barne-funtzionamendurako eta bere organoen borondatea gauzatzeko, bai gardentasunaren eta herritarren parte-hartzearen arloko betebeharretarako, bai Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 97. artikuluan aipatzen diren betebeharretarako, bai eta Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean eta aplikagarri zaizkion beste lege batzuetan ezartzen diren gainerako gaietarako ere.

II. KAPITULUA

HELBURUA ETA EGINKIZUNAK

3. artikulua.– Xedeak eta jarduera-printzipioak.

1.– Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 91. artikulua arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren xedea da lan duina izateko eskubidea erabat garatzen laguntzea, eta langileen enplegarritasuna bermatzen, enpresen eskakizunei egokitutako langile-premiak asetzen eta gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzen efizientziaz laguntzeko moduko lan-merkatua eratu dadin erraztea.

2.– Ahalik eta efikazia eta efizientzia handiena bermatuko du bere eginkizunak betetzean eta zerbitzuak ematean, erabiltzaileen parte-hartzearen printzipioaren arabera, eta haien eskubideak eta interesak eta beste administrazio batzuen eskumenak errespetatuz.

3.– Entearen jarduerak arau hauetan (edo arauok ordeztzen dituztenetan) ezarritako printzipioak bete beharko ditu: Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 91. artikulua; Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 3. artikulua; eta apirilaren 30eko 438/2024 Errege Dekretuaren 4. artikulua, Enplegu Sistema Nazionalaren zerbitzuen zorro komuna eta Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean ezarritako zerbitzu bermatuak garatzen dituenak.

Halaber, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 5. artikuluan jasotako printzipioen arabera jardungo du, eta Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskaritzarekin lankidetzan.

4. artikulua.– Eginkizunak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak, Euskadin duen eskumen-esparruaren barruan, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 92.1 artikuluan jasotako eginkizunak beteko ditu. Halaber, legeek edo Eusko Jaurlaritzak egozten dizkioten edozein motatako eginkizunak beteko ditu, edo enplegu- eta inklusio-politiken arloan eskuordetzen edo agintzen zaizkionak.

Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 92.1 artikulua arabera, hauek dira Lanbide –Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruan:

- a) Enplegarritasuna hobetzeko eskubideak bermatzea, eta Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko zerbitzuak bermatzea eta kudeatzea, lege horretan ezartzen den gisan, eta Euskal Autonomia Erkidegoan Enplegu Sistema Nazionalaren zerbitzu-zorro komuneke zerbitzuak eta zerbitzu bermatuak ematea (Enpleguaren otsailaren 28ko 3/2023 Legean aurreikusita daude zerbitzuok).
- b) Enplegarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriez gain, enplegu-programa espezifikoak egitea eta garatzea, laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat, eta enplegu duina sortzeko.
- c) Lan-merkatuaren premiak, profil okupazionalen bilakaera, lanbide-eskakizunak eta lan-orientazioa aztertzeko eta informatzeko eginkizun guztiak betetzea, eta Euskal Enplegu Sarea osatzen duten entitateek erabili beharko dituzten arreta, informazio eta prospekzioarako tresna komunak diseinatzea eta mantentzea.

- d) Europar Batasunaren Eures sareari (Europako Enplegu Zerbitzuak) dagozkion eginkizunak betetzea.
- e) Lan-bitartekaritza kudeatzea, enplegu-zerbitzuen eskatzaileen erregistroa egitea, eta lan-kontratuen komunikazio-erregistroa kudeatzea.
- f) Enpleguko, gazte-enpleguko, lanerako prestakuntzako eta autoenplegua eta enpresen sorrera, gizarte-ekonomia eta ekintzailatza kolektiboa sustatzeko programak kudeatzea, Euskal Autonomia Erkidegoak enpleguaren arloan dituen erronkei bereziki erantzuteko.
- g) Aztertzea ea betetzen diren enplegu-eskatzaile gisa langabezia-prestazioen eskatzaileek edo onuradunek dituzten betebeharrak, eta, hala badagokio, ez-betetzeen berri ematea prestazioak kudeatzen dituen entitateari.
- h) Zehatzeko ahala erabiltzea enpleguari eta langabeziari buruzko gaietan, legeria espezifikotan ezarritako moduan.
- i) Betekizunak betetzen diren aztertzea eta behar diren kontrol- eta ikuskapen-jarduketak egitea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan diharduten enplegatze-agentziei dagokienez.
- j) Ikerketako, diseinuko eta berrikuntza aplikatuko proiektuak garatzea orientazioaren, prospekzioaren, lan-bitartekaritzaren, ekintzailatzaren eta lanerako prestakuntzaren eremuetan, bai eta enplegu-politikaren beste eremu batzuetan ere, eta proiektu esperimentalak kudeatzea, batez ere Europakoak, enplegu-zerbitzuak ematean ikuspegi eta konponbide berriak garatzea ahalbidetzeko.
- k) Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoak izapidetzea eta kudeatzea; prestazio horiei lotutako kontrol-, ikuskapen- eta zehapen-ahalak baliatzea, eta inklusiorako tresnak eta zerbitzuak kudeatzea.
- l) Zentro- eta entitate-laguntzaileak homologatzeko eta aitortzeko irizpideak ezartzea, bai eta haien funtzionamendua gainbegiratu eta kontrolatzea ere, hargatik eragotzi gabe erregelamenduak egiteko ahala erabiltzeko aukera.
- m) Laneratzeko Enpresen Erregistroa eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa kudeatzea.
- n) Beste zernahi eginkizun garatzea, legeek edo Eusko Jaurlaritzak egozten dizkietenak edo enplegu- eta inklusio-politiken arloan eskuordetzen edo agintzen zaizkionak.

III. KAPITULUA

GOBERNU- ETA KUDEAKETA-EGITURA

1. ATALA.

GOBERNU-ORGANOAK

5. artikulua.– Gobernu-organoak.

1.– Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 93. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren gobernu-organoak administrazio-kontseilua eta zuzendaritza nagusia dira.

2.– Administrazio-kontseilua eta zuzendaritza nagusia organo administratiboak dira, eta esleituta dituzten eginkizun publikoetan administrazio-ahalak betetzen dituzte.

Beren ebazpenek administrazio-bidea agortzen dute, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioan edo lan-arloko jurisdikzioan aurkaratu daitezke (dagokionaren arabera), hargatik eragotzi gabe berraztertzeko errekurtoa jartzeko aukera.

6. artikulua.– Administrazio-kontseilua.

1.– Administrazio-kontseilua Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaritza- eta kontrol-organo gorena da, hiru alderdik osatua, era paritarioan.

2.– Kontseiluburua, idazkaria eta hamalau kide ditu, honela banatuta:

a) Kontseiluburua eta lau kide Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari dagozkio, eta kargu horien titularrak izango dira Eusko Jaurlaritzan enpleguaren gaineko eskumena duen saileko titularra, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendari nagusia, enpleguaren gaineko eskumena duen sailburuordea eta lanbide-heziketaren eta garapen ekonomikoaren gaineko eskumena duten sailen proposamenez izendatutako bi kide, guztiak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrekoak.

b) Bost kide Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari-tza handiena duten sindikatu-etoakoak izango dira.

Kideak Euskal Autonomia Erkidegoan sindikatu-etoako bakoitzak egiaztatzen duen ordezkagarritasunaren proportzioan esleituko dira eta, edonola ere, administrazio-kontseiluan egon beharko dira ordezkari-tza handiena dutenak.

c) Bost kide Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari-tza handiena duten sektore-arto-ko enpre-etoakoak izango dira, enpresa bakoitzak egiaztatutako ordezkagarritasunaren proportzioan izendatuta, baldin eta izaera hori egiaztatu dutenak hainbat badira.

3.– Administrazio-kontseiluaren osaerak gaitasun, eskumen eta prestakuntza egokia duten emakume eta gizonen presentzia orekatua bermatuko du.

4.– Administrazio-kontseiluan ordezkari-tza duten sindikatu- eta enpresa-antolakunde-ek, ordezkari-tza hori benetan baliatzen badute, dirulaguntza bat jaso ahal izango dute organo horretan parte-hartze instituzionaleko lanak garatzeko finantzaketa gisa.

Horretarako, dagokion aurreikuspena egingo da zuzenbide pribatuko ente publikoaren aurrekontuetan.

Dirulaguntzaren baldintzak ezartzea eta haren banaketa enpleguaren arloan eskumena duen sailaren titularren zeregina izango da urtero, eta kontuan hartuko ditu antolakunde bakoitzaren ordezkari-tza eta kide anitzeko organoaren funtzionamenduan haiek ordezkatzten dituzten kideen parte-hartze eraginkorra.

7. artikulua.– Kontseiluburutza.

1.– Administrazio-kontseiluaren burua Eusko Jaurlaritzan enpleguaren gaineko eskumena duen sailburua izango da.

2.– Lanpostua hutsik badago, karguduna ez badago edo hura gaixorik badago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean enpleguaren gaineko eskumena duen sailburuordeak hartuko du kontseiluburuaren lana.

3.– Kontseiluburuak eta haren ordezkioak eginkizun hori betetzeari utziko diote, Gobernu Kontseiluaren ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 24. eta 29. artikuluetan eta hura ordeztzen duen arauan ezarritako kasuetan.

4.– Kontseiluburuak eginkizun hauek izango ditu:

- a) Administrazio-kontseilua ordezkatzeari.
- b) Ohiko eta ezohiko bileretarako deialdia egitea adostea, eta gai-zerrenda finkatzea, kontseiluburuak premiazkoa dela irizten dionean salbu; kasu horretan, deialdian bertan jaso beharko da. Eta adierazi beharko da bilera zein egunetan egingo den, zein ordutan izango diren lehenengo eta bigarren deialdia eta non egingo den.
- c) Bilkuretako buru izatea, eta eztabaidak moderatzea.
- d) Kontseiluaren erabakien aktak eta ziurtagiriak ontzat ematea.
- e) Berdinketarik badago, bere botoaren bidez ebaztea, erabakiak hartu ahal izateko.
- f) Beste pertsona batzuei baimena ematea administrazio-kontseiluaren bileretara joateko, aditu gisa, kontseiluari laguntza egokia emateko. Aditu horiek hitz egiteko aukera izango dute, baina ezingo dute botorik eman.
- g) Kontseiluburuaren berezko beste eginkizun batzuk, edo legez edo erregelamenduz esleitzen zaizkionak.

8. artikulua.– Idazkaria.

1.– Administrazio-kontseiluaren idazkaria kontseiluburuak izendatuko du, zuzendaritza nagusiak proposatuta, aholkularitza juridikoko eginkizunak betetzen dituzten Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko langileen artetik.

Idazkariaren lanpostua hutsik badago, titularra ez badago edo hura gaixorik badago, kontseiluburuak haren baldintza berdinak dituen ordezkio bat izendatuko du.

2.– Idazkariak eginkizun hauek beteko ditu:

- a) Administrazio-kontseiluak hartutako erabakien legezkotasuna zaintzea.
- b) Kontseiluaren bileretara joatea, hitz egiteko aukerarekin, baina botoa eman gabe.
- c) Bilerak deitzea, kontseiluburuak aginduta, eta horien berri ematea kideei, bai eta, hala badagokio, bertaratzeko baimena duten adituei deitzea ere.
- d) Kideek administrazio-kontseiluarekin izandako komunikazio-egintzak jasotzea, bai eta jakinarazpenak, datu-eskariak edo bestelako idatziak ere, baldin eta kontseiluak horien berri izan behar badu.
- e) Administrazio-kontseiluaren bilerak prestatzea, eta, kontseiluburuaren oniritziarekin, horien aktak idatzi eta baimentzea.
- f) Akta-liburua eraman eta zaintzea.
- g) Hartutako erabaki, kontsulta eta irizpenen ziurtagiriak egitea.
- h) Idazkaritzako titularrari dagozkion edo kontseiluburuak berariaz esleitzen dizkion bestelako eginkizunak.

3.– Idazkariak bere eginkizuna betetzeari utziko dio, karguari uko eginda (kontseiluburuak onartuta), kontseiluburuaren ebazpen arrazoituaren bidez edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoarekin duen zerbitzu-harremana edo aholkularitza juridikoko eginkizunak esleituta dituen lanpostuko jarduna amaitzea dakarten arrazoiak direla eta.

9. artikulua.– Kideen izendapena eta eginkizunak.

1.– Eusko Jaurlaritzan enplegu-arloko eskumena duen saileko titularren agindu baten bidez izendatuko dira kideak eta haien ordezkioak (kargua hutsik dagoenean, titularra ez dagoenean edo hura gaixorik dagoenean), hurrengo apartatuetan ezarritako izendapen-arauen arabera.

Izendapena hiru urterako izango da.

2.– Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko ordezkari izendapena (beren karguaren zioz kideak direnena eta egitura organikoaren dekretuaren eta estatutu hauen arabera horien ordezkioak direnena salbu) lanbide-heziketaren eta garapen ekonomikoaren gaineko eskumena duten sailburuek egingo dute (ahal dela, organo gorenaren titularren artean), Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 13. artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari izandakoa duten sektorearteko enpresek eta sindikatuak dagozkien kideak izendatuko dituzte.

4.– Administrazio-kontseiluko kideei dagokie:

- a) Bilkuretara bertaratzea, eta bilkurako eztabaidetan parte hartzea.
- b) Boto-eskubidea egikaritzea eta boto partikularra ematea, bai eta haren esanahia eta arrazoiak azaltzea ere.
- c) Proposamenak, iradokizunak eta galderak egitea.
- d) Esleitutako eginkizunak betetzeko behar den informazio eta dokumentazio zehatza eskuratzea.
- e) Administrazio-kontseiluko kide moduan dituzten bestelako eginkizun, eskubide eta betebeharrak.

10. artikulua.– Kideen kargu-uztea eta administrazio-kontseiluaren berritzea.

1.– Kideek beren kargua utzi ahalko dute, arrazoi hauetakoren baten ondorioz:

a) Agintaldia amaitzea. Agintaldia amaitzean, administrazio-kontseilua osorik berrituko da, prozedura honen arabera:

1. Agintaldia amaitu eta hurrengo hilabetearen barruan, kontseiluburuak administrazio-kontseilua osorik berritzeko prozesua hasiko du, eta aurreko artikuluen 3. apartatuan aipatzen diren sindikatu eta enpresei hilabeteko epea emango die titularrak eta ordezkioak izendatzeko, horietako bakoitzak egiaztatutako ordezkari izendatzaren proportzioan.

Epe horretan bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek (aurreko artikuluen 2. apartatuan aipatzen direnek) beren ordezkariak eta horien ordezkioak izendatuko dituzte.

2. Sindikaturen batek ez baditu izendapenak aurreko puntuan aipatutako epean egiten, dagozkien kideak haren taldeko gainerako entitateei gehituko zaizkie, bakoitzaren ordezkari izendatzaren proportzioan. Horretarako, epe barruan izendapenik egin ez dela egiaztatuta, kontseiluburuak gainerako sindikatuak hilabeteko epea emango die hutsik geratu direnak beteko dituzten titularrak eta ordezkioak izendatzeko, bakoitzak egiaztatuta duen ordezkari izendatzaren proportzioan.

Zenbaki honetan xedatutakoa aplikatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duten sektorearteko enpresei, baldin eta hainbat badira administrazio-kontseiluan ordezkariak izendatzeko eskubidea dutenak eta horietakoren batek ez badu izendapena epe barruan egiten.

b) Saileko edo ordezkatzeko duten sindikatu- edo enpresa-antolakundeko kargua uztea, bai eta antolakundeen kide berriak izendatzea ere.

Beren karguaren zioz izendatzen diren karguak alde batera utzita, administrazio-kontseiluko buruak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail, sindikatu eta enpresa inplikatuak eskatuko dituzten titularrak —eta, hala badagokio, ordezkariak— izenda ditzatela, hilabeteko epean. Paragrafo honetan ezarritakoa ez da aplikatuko, baldin eta kargugabetzea erakundearen ekimenez kide berriak izendatzeagatik gertatzen bada.

Sindikatu eta enpresek ez badituzte izendapenak epe barruan egiten, a) letrako 2. zenbakian zehaztutakoa beteko da.

c) Ebazpen judizial edo administratibo irrimo bat, kargu publikoak betetzeko desgaitasuna edo kargualdi publikoa etetea dakarrena. Izendapena b) letran ezarritako prozeduraren arabera egingo da.

d) Ebazpen administratiboa, kideak behin eta berriz ez bertaratzeagatik, ordezkatzeko duten sindikatuak erabakita. Izapide hauek jarraituko dira:

1. Kontseiluburuak ez bertaratzearen arrazoia zehazteko prozedura hasiko du, eta sindikatu interesdunari 10 eguneko epea emango dio bere eskubideari komeni zaizkion alegazioak egin ditzan.

Behin eta berriz ez bertaratzea dela ulertuko da, baldin eta sindikatu bateko ordezkari diren kideak hiru bileratara huts egiten badute, jarraian, justifikaziorik gabe, edo lau bileratara, txandaka, urtebeteko epean.

2. Alegazioak jaso ondoren edo horretarako emandako epea alegaziorik egin gabe igaro ondoren, kontseiluburuak dagokion ebazpena emango du, administrazio-kontseiluko gainerako kideekin kontsultatu ondoren, 10 eguneko epean.

3. Ez-bertaratzea sindikatuaren erabakia izan dela egiaztatutzat jotzen duen ebazpenak, halaber, sindikatuen ordezkari izendatutako kideen kargu-uztea deklaratu du.

4. Hutsik dauden kideak gainerako sindikatuak izendatutako pertsonak beteko dituzte, beren ordezkaritzaaren proportzioan, a) letrako 2. zenbakian ezarritakoaren arabera.

Letra honetan xedatutakoa aplikatuko zaie Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkaritza handiena duten sektorearteko enpresa-antolakundeei, baldin eta horietakoren batek edo batzuek beren ordezkariak administrazio-kontseilura ez joatea erabakitzen badute.

2.— Hiru urteko epea bete arte geratzen den denborarako izendatuko dira kideak eta, hala badagokio, horien ordezkariak, 1. apartatuko b), c) eta d) letratan araututako kargu-uzteen ondoriozkoak direnean.

11. artikulua.— Administrazio-kontseiluaren eginkizunak.

Administrazio-kontseiluari dagokio eginkizun hauek betetzea:

a) Aurrekontuaren aurreproiektua, jardueren urteko memoria eta zuzenbide pribatuko ente publikoan aurreikusitako urteko kontuak onartzea. Halaber, finantzaketa-proposamenak onartzea dagokio.

b) Kontratu-programa proposatzea, Eusko Jaurlaritzak onartzeko, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 96. artikuluen arabera.

c) Eusko Jaurlaritzari zuzendaritza nagusiko titularra izendatzeko proposatzea.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren jarduera-irizpideak onartzea, enpleguaren gaineko eskumena duen sailburuak ematen dituen irizpide estrategikoen arabera. Kontratu-programaren indarraldi bera izango du, ahal dela.

e) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren antolaketa- eta funtzio-egitura onartzea, estatutu hauetan xedatutakoa osatzeko, hargatik eragotzi gabe estatutuak aldatu beharra, hala badagokio.

Era berean, zuzendaritzako langileak izendatzea eta kargugabetzea, zuzendaritza nagusiak proposatuta, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 99.3 artikuluen arabera.

f) Zuzenbide pribatuko ente publikoaren lanpostu-zerrenda, zuzendaritza-izaerako lanpostuak antolatzeke tresna eta entearen mendeko langile lan-kontratudunen hitzarmen kolektiboak onartzea.

g) Ente publikoaren jarduera-plan orokorrak eta lanerako prestakuntzaren plangintza eta ebaluazioa onartzea, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 65.1.c) artikuluan aurreikusitako baldintzetan, bai eta asistentzia, ikuskapen eta kontroleko urteko plana ere, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 96. artikuluen arabera.

Era berean, entearen dirulaguntzen arloko plangintza estrategikoa proposatu behar du, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularrak onar dezan, eta plangintza horren ebaluazioa egin behar du, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

h) Hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak, plan estrategikoa eta kudeaketa-, jarraipen- eta ebaluazio-planak onartzea, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuaren arabera.

i) Lankidetzak-hitzarmenak, jarduera-protokolo orokorrak eta bestelako lankidetzak-formulak sinatzea onartzea, 4. artikuluan aipatzen den eremu funtzionalaren barruan.

j) Dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta deialdiak egitea, baldin eta administrazio-kontseiluari badagokio gastua baimentzea, k) letran xedatutakoaren arabera.

Halaber, hala badagokio, emate zuzeneko prozedura bidez ematen diren laguntzek bete beharreko baldintzak onartzea.

k) Milioi bat eurotik gorako gastuak (BEZa barne) baimentzea. Gastua kontratu edo akordio ireki bat egitera bideratzen bada, hori baimentzea.

l) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren funtzionamenduaren ebaluazio-plana onartzea, eta haren helburuak hobeto betetzeko beharrezkotzat jotzen diren neurriak proposatzea, hargatik eragotzi gabe Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 89. artikuluan ezarritakoa.

Era berean, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 52. artikuluan aipatzen den ebaluazio-dokumentua onartzea dagokio, enpleguaren eta administrazio publikoaren arloan eskumena duten Eusko Jaurlaritzako sailei bidaltzeko.

m) Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari proposatzea betetzeko zailak diren lanbideak.

n) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari dagozkion egintza judizialen eta errekurtsoen egikaritzea adostea, bai eta ekintza edo errekurtsuetan atzera egitea, kereilatik aldentzea edo kontrako alderdiaren uziei amore ematea ere.

ñ) Eusko Jaurlaritzari proposatzea merkataritza-sozietateak edo bestelako entitate publiko edo pribatuak sortzea eta horietan parte hartzea.

o) Administrazio-kontseiluaren funtzionamendu-erregelamendua eta estatutuak aldatzeko proposamena onartzea.

12. artikulua.– Administrazio-kontseiluaren funtzionamendua.

1.– Administrazio-kontseiluak aurrez aurre edo urrutitik egingo ditu bilerak.

Urrutitik egiten diren bileretan, kideak leku desberdinetan egon ahalko dira, baldin eta bitarteko elektronikoen bidez (telefonikoak barne) eta ikus-entzunezkoen bidez behar bezala egiaztatzen bada kideak edo horien ordezkioak nor diren, zer adierazten duten eta adierazpen horiek zein unetan egiten diren. Gainera, horien arteko elkarrekintza edo komunikazioa benetako denboran gertatu behar da, eta bileran bitarteko egokiak izan behar dira. Bitarteko elektroniko egokitza joko dira, besteak beste, posta elektronikoa, audiokonferentziak eta bideokonferentziak.

2.– Ohiko bilera gutxienez bi hilean behin egingo da, eta ezohikoa, kontseiluburuak deialdia egin ondoren, berak eskatuta edo kideen gutxienez heren batek proposamen arrazoitua eginez gero. Azken kasu horretan, kontseiluburuak ezohiko bilerarako deia egingo du eskaera egin eta hurrengo zazpi egun naturalen barruan, eta gai-zerrendan eskaera arrazoituaren xede diren puntuak sartu beharko ditu, hargatik eragotzi gabe interesgarritzat jotzen dituen beste puntu batzuk gehitzeko aukera.

3.– Kontseiluburuak gutxienez bost egun natural lehenago egingo du bileretarako deia, ezohiko bileren kasuan izan ezik. Azken horietarako deia bi egun balioduneko epean egin ahal izango da.

Deialdia posta elektronikoa bidez bidaliko zaie kontseiluko kideei. Bertan, bileren gai-ordena jasoko da eta, aurreko paragrafoan aipatzen diren epeetan, gai-ordenan agertzen diren puntuei buruzko informazioa jarriko da kideen esku.

4.– Bilerak lehen edo bigarren deialdian egingo dira, eta horien artean ordu erdiko tarteak egongo dira.

5.– Lehen deialdian, administrazio-kontseilua behar bezala eratuko da baldin eta, kontseiluburuak eta idazkariak edo horien ordezkioez gain, kideen erdiak baino gehiago badaude; bigarren deialdian, berriz, horien herena edo gehiago badaude.

Edonola ere, behar bezala eratuta geratuko da, deialdia egiteko baldintzak bete ez direnean ere, baldin eta, kide guztiak bertan egonda, aho batez hala erabakitzen badute.

6.– Kontseiluaren erabakiak bertaratutako pertsonen igoerretako botoen gehiengo soilez hartuko dira. Boto horien artean, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa ordezkatzeko dutenen aldeko botoa jaso beharko da.

Berdinketa bada, kontseiluburuaren botoaren bidez ebatziko da.

7.– Ezingo da erabakirik hartu gai-zerrendan sartu ez diren gaiei buruz, salbu eta bileran kide guztiak badaude eta gaia premiazkoa dela adierazten bada gehiengoaren aldeko botoarekin, aurreko paragrafoan ezarritako arauari jarraikiz.

8.– Ezinezkoa bada Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzea, eta gaia atzerapenik gabe ebatzi beharra badago, kontseiluburuak, behar eta premia hori justifikatu ondoren, salbuespen gisa ezarri ahal izango du gai baten aparteko bozketa egitea. Hartara, dagokion erabakia hartu ahalko da, eta hura onartzeko aski izango da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa ordezkatzeko duten kideen gehiengoaren aldeko botoa.

Apartatu honen ondorioetarako, 11. artikulua a), b), c), d), e), f), g), i), j), k), n) eta o) letretan aurreikusitako eginkizunei buruzko erabakiak ezin direla atzeratu ulertuko da, estatutuak aldatzeko proposamenari dagokionez.

Behin eta berriz erabakiak hartu ezina gutxienez bi administrazio-kontseilutan egiaztatu beharko da, xedapen hauetan aurreikusitako eginkizunak betetzeari dagokionez: 11. artikulua a), b), c), e) (bigarren paragrafoa) eta n) letrak. Gainerako kasuetan, lau administrazio-kontseilutan, gutxienez.

9.– Bilera bakoitzaren akta egingo da, eta, bertan, bertaratu diren pertsonak, lekuaren eta egunaren datuak, eztabaidagai nagusiak, bozketaren modua eta emaitzak, eta erabakien edukia jasoko dira.

Aktak elektronikoki sinatuko ditu idazkariak, kontseiluburuaren oniritziarekin, eta administrazio-kontseiluaren bileran bertan edo hurrengoan onartuko dira.

10.– Kontseiluko kideen gehiengoaren erabakiz, batzorde teknikoak edo lantaldeak eratu ahal izango dira gaien edo lurralde-eremuen arabera, hiru alderdikoak eta paritarioak. Horietan, landuko diren gaietan adituak diren kanpoko pertsonen parte hartu ahal izango dute, eta taldearen bilertara joango dira; hitza izango dute, baina botorik ez.

11.– Estatutu hauetan eta, hala badagokio, ezartzen diren funtzionamendu-arau osagarrietan aurreikusi ez diren alderdietan, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoen araubideari buruz ezarritakoa aplikatuko da.

13. artikulua.– Zuzendaritza nagusia.

1.– Zuzendaritza nagusia Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko kide bakarreko gobernu-organoa da.

2.– Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 93.3 artikulua arabera, zuzendaritza nagusiaren titularra Eusko Jaurlaritzak izendatuko du, administrazio-kontseiluak proposatuta.

3.– Zuzendaritza nagusiaren titularra goi-karguduna da, sailburuorde-mailakoa.

14. artikulua.– Zuzendaritza nagusiaren eginkizunak.

1.– Zuzendaritza nagusiari dagokio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren ohiko zuzendaritza eta ordezkaritza, hargatik eragotzi gabe administrazio-kontseiluari eta haren kontseiluburuari esleitutakoa.

Horretarako, kontseiluak erabakitzen dituen lankidetzak-hitzarmenak, kudeaketa-gomendioko akordioak, protokoloak eta lankidetzak-tresnak sinatzea dagokio.

2.– Entearen zerbitzuen exekuzio, zuzendaritza eta koordinazioko eginkizunak eta 4. artikuluan aurreikusitako eginkizunak kudeatzekoak betetzen ditu, administrazio-kontseiluari eta zuzendaritza exekutiboari dagozkienak salbu. Zehazki, hauek dira zuzendaritza nagusiaren eginkizunak:

a) Administrazio-kontseiluari proposamenak egitea hark onartu, erabaki, baimendu edo izendatzeko eskumena duen gaitan.

b) Aurrekontuen aurreproiektua egitea eta administrazio-kontseiluari proposatzea, eta programa-kontratuaren zirriborroa egitea 11.b) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

c) Administrazio-kontseiluaren aurrean gaiari buruzko eta, zehazki, aurrekontuaren betearazpenari buruzko kontuak ematea. Era berean, kontseiluari informazioa eman behar dio, hark eskatutako gaien inguruan; bereziki, f) eta g) letretan aurreikusitako eginkizunen ingurukoa.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zerbitzuak zuzendu eta ikuskatzea, eta administrazio-kontseiluaren erabakiak egikaritu eta betearaztea, hargatik eragotzi gabe zuzendaritza exekutiboari dagozkien eginkizunak.

e) Milioi bat edo gutxiagoko gastuak eta 500.000 eurotik gorakoak (BEZa barne) baimentzea, eta ordainketak agintzea, salbu eta zuzenbide pribatuko ente publikoaren zuzendaritza exekutiboari esleitutakoak.

f) Espedientea onartzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren berezko gaiei buruzko kontratuak sinatzea eta sektore publikoko kontratuei buruzko legediaren arabera kontratazio-organismoari esleituta dauden eskumen eta ahalmenak betetzea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoa milioi bat eurokoa edo gehiagokoa denean (BEZa barne).

Era berean, akordio irekiak, kudeaketa itunduko akordioak eta sektore publikoko kontratuei buruzko legeriaren mende ez dauden kontratuak sinatzea dagokio, baimendutako gastuaren zenbatekoa aipatutako zenbatekoaren berdina edo handiagoa denean.

g) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan nominatiboki aurreikusitako dirulaguntzak ematea, dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdiak onartzea, baldin eta gastua baimentzea zuzendaritza nagusiari badagokio, eta norgehiagoka-prozedurei lotutako deialdiak ebatzea.

h) Langileen zuzendaritza-lana betetzea, 28. artikuluan ezarritakoaren arabera.

i) Zehatzeko ahala betetzea enpleguari eta langabeziari buruzko gaitan, eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazio ekonomikoari buruzkoetan.

j) Entearen zuzendaritzen ebatzen eta administrazio-egintzen aurka jartzen diren errekurtsioak eta bide judizialera jo aurretiko erreklamazioak ebatzea, salbu eta, legeko edo arauzko xedapenaren arabera, amaiera ematen badiote administrazio-bideari.

Era berean, zuzendaritza nagusiak edo zuzendaritza exekutiboek emandako egintzak ofizioz berrikustea dagokio, egintzak errebokatzea eta azken horien akatsak zuzentzea izan ezik.

k) Ondare-erantzukizuneko prozedurak ebatzea.

l) Maileguak, kredituak, abalak edo beste berme batzuk kontratatzeko baimena eskatzea finantzen arloan eskumena duen sailari, Euskal Autonomia Erkidegoko Finantzen azaroaren 8ko 8/1996 Legean edo hura ordeztzen duen araudian xedatutakoaren arabera, administrazio-kontseiluaren adostasuna jaso ondoren.

m) Zuzenbide pribatuko ente publikoaren auditoretza garatzea, haren helburuak lortzeko egon daitezkeen arriskuak kudeatzea eta zerbitzu eta jardueren barneko kontrol eta ikuskapenak egitea.

n) Ohiko zuzendaritzako, administrazioiko eta kudeaketako bestelako eginkizunak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko beste organo bati esleituta ez daudenak.

3.– Zuzendaritza nagusiaren titularraren lanpostua hutsik dagoenean, titularra ez dagoenean edo hura gaixo dagoenean, hurrengo artikuluan aipatzen diren zuzendaritza exekutiboen titularrek, agertzen diren hurrenkeran, organo horri esleitutako eskumenak baliatuko dituzte.

4.– Zuzendaritza nagusiaren ebazpenek amaiera ematen diote administrazio-bideari.

2. SEKZIOA

KUDEAKETA-ORGANOAK

15. artikulua.– Zuzendaritza exekutiboak.

1.– Zuzendaritza exekutiboak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren eginkizunak kudeatzen dituzten organoak dira.

2.– Zuzendaritza exekutiboak zuzendaritza nagusiaren mende daude organikoki eta funtzionalki, eta hauek dira:

a) Koordinazio eta Komunikazio Zuzendaritza.

b) Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza.

c) Prestazioen Zuzendaritza.

d) Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza.

e) Enpresen eta Ekintzailatzaren Zuzendaritza.

3.– Zuzendaritza exekutiboentzuzuzendaritza publiko profesionala izangoda, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zerbitzu-harremana formalizatuko du, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 99. artikuluen 3. eta 4. paragrafoetan ezarritakoaren arabera.

Goi-kargudunaren pareko izaera du, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen edo hura ordeztzen duen arauaren ondorioetarako.

4.– Zuzendaritza exekutiboetako titularren postuak hutsik badaude, edo titularrak ez badaude edo haiek gaixorik badaude, zuzendariak beteko dituzte haiei esleitutako eginkizunak (betiere egoera hori gertatu aurretik eginkizun horiek eskuordetu ez badira), estatutu hauetan agertzen diren hurrenkeraren arabera, eta lehenengo agertzen dena zuzendaritza nagusiko titularrak beteko du.

16. artikulua.– Eginkizunak.

Oro har, zuzendaritza exekutiboek eginkizun hauek beteko dituzte:

- a) Atxikita dituzten zerbitzuak zuzendu, planifikatu, koordinatu eta sustatzea.
- b) Beren jarduera-eremukogaiakebaztea, hargatikeragotzigabe administrazio-ahalak betetzeari buruz xedatutakoa, estatutu hauen arabera eskumen hori duen administrazio-organoaren ardura izango baita hori.
- c) Beren jarduera-eremuan hizkuntza ofiziala kerabiltzeko irizpideak eta administrazio-kontseiluak onartzen dituen planak betetzen direla zaintzea, eta horien jarraipen eta ebaluazio egokia egiten laguntzea.
- d) Zuzendaritza nagusiari proposamenak egitea beraren jarduera-eremuaren barruan eta organo horri dagozkion gaiei buruzko informazioa ematea.
- e) Beren jarduera-eremuan ordainketak agintzea.

17. artikulua.– Koordinazio eta Komunikazio Zuzendaritza.

Koordinazio eta Komunikazio Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, aurreko artikuluan aurreikusten direnez gain:

- a) Zuzendaritza nagusiari laguntzea plangintza- eta ebaluazio-proposamenak egiten eta haien jarraipena egiten, bai eta horiek koordinatzen eta gainbegiratzen ere, eta, horretarako, zuzendaritza exekutiboek beren jardun-eremuei buruzko informazioa emateko prozedurak proposatzea.
 - b) Entearen jardueraren ebaluazioa bermatuko duen adierazle-sistema baten ezarpena zuzendu eta koordinatzea, zuzendaritza nagusiaren jarraibideetan oinarrituta, bat etorritik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren funtzionamendua ebaluatzeko planarekin.
- Paragrafo honetan xedatutakoak ez ditu eragotziko enplegu- eta gizarteratze-politikak ebaluatzeko organoari dagozkion eskumenak.
- c) Zuzendaritza exekutiboekin batera lan egiteko mekanismoak definitzea, entearen antolaketaren ekintza bateratua bermatzeko.
 - d) Zuzendaritza exekutiboek arreta, informazio eta prospekziarako baliabide komunak diseinatze eta mantentzeko izan behar duten parte-hartzea koordinatzea.
 - e) Enpleguko lurralde-bulegoak zuzendu, koordinatu eta gainbegiratzea, hargatik eragotzi gabe zuzendaritza exekutiboen mendekotasun funtzionalari buruz 24. artikuluan ezarritakoa.
 - f) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak Euskal Enplegu Sarean duen parte-hartzea koordinatzea.
 - g) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari dagokion arreta kudeatzea, bai eta entearen arreta integral eta multikanala ere, Herriarrei arreta integral eta multikanala emateko eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izateko ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren arabera edo hura ordeztzen duen arauaren arabera, 25. artikuluen 3.g) eta 4. apartatuetan tokiko enplegu-bulegoei buruz xedatutakoa alde batera utzi gabe.
 - h) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren informazio- eta komunikazio-politika diseinatu, aholkatu eta ezartzea, Euskadiko Publizitate eta Komunikazio Instituzionalari buruzko abenduaren 23ko 6/2010 Legearen arabera.

18. artikulua.– Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritza.

1.– Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio,
16. artikuluan aurreikusten direnez gain:

a) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko giza baliabideak kudeatzea, eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 19.1 artikuluan aurreikusitako eginkizunak betetzea, aipatu aginduko a), b) eta d) letretan ezarritakoak salbu.

b) Entearen aurrekontua eta ekonomia kudeatzea, hargatik eragotzi gabe administrazio-kontseiluari eta zuzendaritza nagusiari esleitutako eginkizunak. Era berean, Europako Gizarte Funtsetik edo beste funts batzuetatik datozen eta enteari esleitu zaizkion baliabideak administrazteko beharrezkoak diren jarduerak egitea.

c) 500.000 euroko edo zenbateko horretatik beherako gastuak (BEZa barne) baimentzea.

d) Espedientea onartzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren berezko gaiei buruzko kontratuak sinatzea eta sektore publikoko kontratuei buruzko legediaren arabera kontratazio-organismoari esleituta dauden eskumen eta ahalmenak betetzea, lizitazioaren oinarritzko aurrekontuaren zenbatekoa milioi bat euro baino txikiagoa denean (BEZa barne).

Halaber, akordio irekiak, kudeaketa itunduko akordioak eta sektore publikoko kontratuei buruzko legeriaren mende ez dauden kontratuak sinatzea dagozkie, baimendutako gastuaren zenbatekoa milioi bat euro baino txikiagoa denean (BEZa barne).

e) Dirulaguntzen deialdiak prestatzea eta haien oinarriak onartzea, Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorraren Zuzendaritzari dagokionean gastua baimentzea eta ondoz ondoko emate-prozedurei lotutako dirulaguntzak ebatzea.

f) Enteak behar dituen informazio- eta komunikazio-sistemak, datu-baseak, sareak eta sistema eragileak antolatu eta kudeatzea, ekipo eta programa informatikoak mantentzea, eta datu pertsonalen babesari buruzko araudia betetzen dela bermatzea, hargatik eragotzi gabe Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko datuak babesteko ordezkariari dagozkion eginkizunak.

Zehazki, arreta, informazio eta prospekzioko tresna komunak diseinatzea eta mantentzea, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legean aurreikusitakoaren arabera, gainerako zuzendaritza exekutiboekin lankidetzan.

g) Ondare-erantzukizuneko espedienteak abiaraztea (hala badagokio) eta izapidetzea.

h) Enpleguaren eta langabeziaren gaineko zehapen-espedienteak bideratzea, legedi espezifikoan ezarritako baldintzetan.

i) Zuzenbide pribatuko ente publikoaren aholkularitza juridikoa.

j) Atxikita dituen EAEko ondarearen ondasunak eta eskubideak administratu eta zaintzea, eta EAEko Ondarearen Ondasun eta Eskubideen Inbentario Orokorra egiten laguntzea. Apartatu honetan xedatutakoak ez ditu eragotziko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean ondare-arloko eskumena duen saileko organismoek esleituta dituzten eginkizunak.

k) Enteko Segurtasun eta Osasun Unitatearen jarduerak zuzentzea, hargatik eragotzi gabe Prebentzio Zerbitzuaren eskumenak.

l) Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko indarreko plan eta arauetan aurreikusita dauden neurriak bete daitezen sustatzea.

m) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko langileen erregistroa zuzentzea eta kudeatzea.

n) Diru-bilketaren kudeaketa egitea, ezertan eragotzi gabe diruzaintzaren arloan eskumena duen zuzendaritzari dagozkion eskumenak, bat etorritik Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Diru-bilketa Erregelamendua onartzen duen urtarrilaren 12ko 1/2021 Dekretuarekin.

2.– Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritza organo administratiboa da, eta administrazio-ahalak baliatzen ditu, aurreko apartatuan aipatzen diren izaera publikoko eginkizunetan.

3.– Zuzendaritza horren ebazpenek ez diote administrazio-bideari amaiera ematen, salbu eta dirulaguntzen oinarriak eta dirulaguntza-deialdiak onartzeko direnetan.

19. artikulua.– Prestazioen Zuzendaritza.

1.– Prestazioen Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, 16. artikuluan aurreikositakoez gain:

a) Azaroaren 21eko 173/2023 Dekretuaren bidez onartutako Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamenduan aurreikositako prozedurak abiarazi, izapidetu eta ebaztea, hargatik eragotzi gabe c) letran zehapen-prozedurei buruz ezartzen dena.

b) Bizitzeko gutxieneko diru-sarrera eta, hala badagokio, beste edozein prestazio edo laguntza kudeatzea (baldin eta horien kudeaketa Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari badagokio), Euskal Autonomia Erkidegoari agindu edo eskualdatzen zaizkion eginkizunak betez.

c) Zehapen-espedienteak bideratzea, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Sistemaren prestazio ekonomikoei dagokienez.

d) Aztertzea ea betetzen diren enpleguaren arloko betebeharrak, baldin hauek jasotzearen ondoriozkoak badira: langabezia-prestazioa eta -subsidioa, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren prestazioak edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatzen duen beste edozein prestazio, subsidio edo laguntza.

e) Administrazio-kontseiluak onartzen duen laguntza, ikuskapen eta kontroleko urteko plana egikaritzea eta Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legearen 93. artikuluan aurreikositako eginkizunak garatzea.

2.– Prestazioen Zuzendaritza organo administratiboa da, eta administrazio-ahalak baliatzen ditu, aurreko apartatuan aipatzen diren izaera publikoko eginkizunetan.

3.– Prestazioen Zuzendaritzaren ebazpenek ez diote administrazio-bideari amaiera ematen, hargatik eragotzi gabe azaroaren 21eko 173/2023 Dekretuaren bidez onartutako Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamenduaren 86., 88. eta 101. artikuluetan ezarritako kasuak.

20. artikulua.– Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza.

1.– Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, 16. artikuluan aurreikusten direnez gain:

a) Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren erabiltzaileak gizarteratzeko eta laneratzeko tresnak eta zerbitzuak kudeatzea.

b) Bermatzea, batetik, pertsonen eskubideak, eta, bestetik, enplegarritasuna hobetzeko betebeharrak betetzen direla; horretarako, pertsonak laneratzeko zerbitzuak kudeatzea dagokio, hargatik eragotzi gabe lurralde-zerbitzuei dagozkienak.

Era berean, enplegu-zerbitzuen erabiltzaileei zuzendutako esku hartzeko eta arreta emateko ereduak prestatzea dagokio, lurralde-zerbitzuek ezar ditzaten.

c) Euskal Enplegu Sareko zerbitzuak diseinatu eta kudeatzea, enpleguaren eta enplegu-zerbitzuen eskatzaileei zuzenduta, bai eta enplegarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarriak ere, hargatik eragotzi gabe foru-aldundiei eta toki-entitateei dagokien kudeaketa.

Berari dagokio, halaber, lan-merkatuari buruzko informazio aurreratuaren zerbitzua kudeatzea, Enpresen eta Ekintzailetzaren Zuzendaritzarekin batera.

d) Arreta, informazio eta prospekzioko tresna komunak diseinatzeko eta mantentzen laguntzea.

e) Prestazioen Zuzendaritzari 19.1.d) artikuluan aurreikusitako eginkizunak betetzeko beharrezkoa den laguntza ematea.

f) Enpleguaren eta enplegu-zerbitzuen eskaera-erregistroa eta Lanerako Prestakuntza Erakundearen Euskal Erregistroa kudeatzea.

g) Lanerako Prestakuntza Plana egikaritzea; lanerako prestakuntza programatzea, Enpresen eta Ekintzailetzaren Zuzendaritzarekin koordinatuta.

h) Pertsonen kualifikazioa eta birkualifikazioa etengabe bultzatzea, egungo eta etorkizuneko beharrei buruzko datu egiaztagarri eta eskuragarrietatik abiatuta.

i) Prestakuntza Espezialitateen Euskal Katalogoa kudeatzea, eta hezkuntza-administrazioaren prestakuntza-eskaintzarekin behar bezalako koordinazioa egongo dela bermatzea.

j) Euskal Autonomia Erkidegoan lanerako prestakuntzaren arloan jarduten duten organismo eta entitateekin koordinatzea eta lankidetzan aritzea.

k) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak pertsonen laneratzearen alde egiten dituen jarduerak kudeatzea, horiei euskarria ematea, horiek planifikatzea, diseinatzea eta gauzatzea, eta enplegu-programak, enplegua aktibatzeako programak eta enpleguari aktiboki laguntzeko programak kudeatzea, gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen zuzendutakoak barne.

l) Laneratzeko Enpresen Erregistroa eta Enplegu Zentro Berezien Euskal Erregistroa zuzentzea eta kudeatzea.

2.– Aurreko apartatuan xedatutakoak ez ditu eragotziko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren gobernu-organoei eta Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari kontratazio-organo gisa dagozkien eginkizunak, kontuan izanda deialdiak onartzeko, dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, lankidetzatresnak sinatzeko organo eskudunak direla.

3.– Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritza organo administratiboa da, eta administrazio-ahalak baliatzen ditu, 1. apartatuan aipatzen diren izaera publikoko eginkizunetan.

21. artikulua.– Enpresen eta Ekintzaitzaren Zuzendaritza.

1.– Enpresen eta Ekintzaitzaren Zuzendaritzari eginkizun hauek dagozkio, 16. artikuluan aurreikusten direnez gain:

- a) Euskal Enplegu Sareak enpresa eta entitate enplegatzaleei ematen dizkien zerbitzuak diseinatzea eta kudeatzea, eta haien eskubideak eta betebeharrak betetzen direla bermatzea, hargatik eragotzi gabe foru-aldundiei eta toki-entitateei dagokien kudeaketa.
- b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zerbitzuen erabilera sustatzea enpresa eta entitate enplegatzaleen artean; horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko jarduera ekonomiko eta sozialean eragina duten eragile desberdinekin harreman sistematikoa ezartzea dago.
- c) Europar Batasunaren Eures sareari (Enplegu Zerbitzu Europarrak) lotutako eginkizunak betetzea.
- d) Aholkularitza ematea autoenplegurako, ekintzaitzarako eta gizarte-ekonomia sustatzeko, bai eta kontratazioa sustatzeko eskuragarri dauden pizgarri eta neurriei buruz ere.
- e) Enpresa eta entitate enplegatzaleekin lankidetzak sustatzea, prestakuntza-behar orokor eta sektorialak detektatzeko.
- f) Arreta, informazio eta prospekzioko tresna komunak diseinatzen eta mantentzen laguntzea.
- g) Enpresen eta produkzio-sarearen egungo eta etorkizuneko beharrianen jarraipena egiteko metodologiak diseinatzea, planifikatzea eta kudeatzea.
- h) Orokorrean, enpresa eta entitate enplegatzaleei arreta ematea, enplegu duina sortzen duten ekimenak babesteko eta sustatzeko, barne hartuta enpresak sortzen laguntzeko eta kontratazioa sustatzeko programen kudeaketa.

2.– Aurreko apartatuan xedatutakoak ez ditu eragotziko Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendaritza-organoei eta Administrazioaren eta Zerbitzu Orokorren Zuzendaritzari kontratazio-organo gisa dagozkien eginkizunak, kontuan izanda deialdiak onartzeko, dirulaguntzak emateko eta, hala badagokio, lankidetzak-tresnak sinatzeko organo eskudunak direla.

3.– Enpresen eta Ekintzaitzaren Zuzendaritza organo administratiboa da, eta administrazio-ahalak baliatzen ditu, 1. apartatuan aipatzen diren izaera publikoko eginkizunetan.

3. ATALA.

ZUZENDARITZA- ETA KUDEAKETA-ORGANOENTZAKO LAGUNTZA-ZERBITZUAK

22. artikulua.– Zuzendaritza- eta kudeaketa-organoentzako laguntza-zerbitzuak.

1.– Zuzendaritza- eta kudeaketa-organoentzako laguntza-zerbitzuak antolaketa-unitate nagusiak dira, hierarkikoki zuzendaritza nagusiaren mende daudenak, eta aholkularitza, informazioa eta laguntza ematen dizkiete zuzendaritza- eta kudeaketa-organoei.

2.– Laguntza-zerbitzuak hauek dira:

- a) Kabinete Teknikoa, informazioa prestatu, aztertu eta ikertzen duena edo antzeko eginkizunak betetzen dituen. Halaber, Enpleguaren eta Prestakuntzaren Euskal Behatokiaz arduratzen da, Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 46. artikuluan aurreikusitako irismenarekin.

b) Ikerketa eta Berrikuntza Zerbitzua, zeinaren ardura baita analisi, ikerketa, diseinu, berrikuntza aplikatu eta jardunbide onen programak garatzea, enplegu- eta inklusio-zerbitzuen berrikuntzarako eta etengabeko hobekuntzarako.

3.— Administrazio-kontseiluak zuzendaritza- eta kudeaketa-organoei laguntzeko zerbitzu berriak sortu eta daudenak ezabatu edo aldatu ahalko ditu, eta horien mendetasun hierarkikoa eta eginkizunak ezarri.

IV. KAPITULUA

LURRALDE-ZERBITZUAK

23. artikulua.— Lurralde-zerbitzuak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren lurralde-zerbitzuak lurraldeko eta tokiko enplegu-bulegoen sare batean antolatzen dira, eta, Euskal Enplegu Sarearen mapa betez, enteak esleitura duen zerbitzu publikoa hobeto ematen laguntzen dute.

24. artikulua.— Enpleguko lurralde-bulegoak.

1.— Enpleguko lurralde-bulegoak organikoki Koordinazio eta Komunikazio Zuzendaritzaren mende daude, eta funtzionalki zuzendaritza exekutiboen mende, kasuan kasuko jarduera-eremuan.

Koordinazio eta Komunikazio Zuzendaritzak zuzendaritza exekutibo guztien koordinazioa bermatuko du, enpleguko lurralde-bulegoen zuzendaritza funtzionala modu antolatuan garatzeko.

2.— Lurralde-bulegoek, beren lurralde-eremuan, eginkizun hauek dituzte:

a) Tokiko enplegu-bulegoen funtzionamendua zuzentzea, koordinatzea eta ikuskatzea.

b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren planak eta programak ezartzea, lurraldean garatu beharrekoak.

c) Foru-aldundiekin, udalerriekin eta sektore publikoa osatzen duten gainerako tokiko ente eta entitateekin lankidetzan aritzea sustatzea, Euskal Enplegu Sarean sar daitezen, hargatik eragotzi gabe enpleguaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak haiek sarean sartzea adosteko duen eskumena.

Era berean, lurraldean leihatila bakarren sorrera sustatzeko ardura dute, Euskal Enplegu Sareko zerbitzu-zorroa modu antolatu eta osagarrian garatzeko, Euskal Enplegu Sarearen maparen arabera.

d) Lurraldeko jarduera ekonomiko eta sozialean eragina duten eragile desberdinekiko harreman sistematikoa dinamizatzea.

e) Enpresen eta Ekintzailatzaren Zuzendaritzarekin koordinatuta, beren lurralde-eremuko enpresetan prospekzio-jarduerak garatzea, egungo eta etorkizuneko lanbide-beharrak detektatzeko eta tokiko enplegu-bulegoek garatzen dituztenak koordinatzeko.

f) Administrazio-prozedurak izapidetzen laguntzea.

g) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaritza-organoek eta zuzendaritza exekutiboek agintzen dizkieten bestelakoak.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak hiru lurralde-bulego ditu, bat lurralde historiko bakoitzeko.

25. artikulua.– Tokiko enplegu-bulegoak.

1.– Tokiko enplegu-bulegoak enplegu-zerbitzuak emateko oinarrizko unitatea dira. Horien kopurua eta kokapena administrazio-kontseiluak zehazten du, Euskal Enplegu Sarearen mapak ezartzen duenaren arabera.

2.– Tokiko enplegu-bulegoak zein lurraldetan kokatuta dauden, hango lurralde-bulegoaren mende daude organikoki eta funtzionalki.

Hala ere, Koordinazio eta Komunikazio Zuzendaritzak enpleguko lurralde-bulegoen eta zuzendaritza exekutiboen koordinazioa bermatuko du, tokiko bulegoen zuzendaritza funtzionala modu antolatu eta homogeneoan garatzeko.

3.– Tokiko enplegu-bulegoek eginkizun hauek dituzte esleituta:

a) Bulego bakoitzak esleituta dituen pertsonen enplegarritasuna hobetzeko eskubideak bereiztea eta eskubide horiei dagozkien prestazioen edukia lortzea, bai eta betebeharrak betetzen direla kontrolatzea ere.

b) Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemako prestazio ekonomikoen onuradunak (bulego bakoitzak esleituta dituenak) laneratzeko zerbitzuak ematea eta betebeharrak betetzen direla zaintzea, hargatik eragotzi gabe beste sistema batzuei dagozkienak.

c) Diru-sarrerak bermatzeko errentaren onuradunen hitzorduak eta agerraldiak bideratzea, Inklusiorako eta Diru-sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren abenduaren 22ko 14/2022 Legean eta azaroaren 21eko 173/2023 Dekretuaren bidez onartutako Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren Erregelamenduan ezarritakoaren arabera.

d) Euskal Enplegu Sarearen zerbitzu-zorroko eta enplegarritasuna eta okupagarritasuna hobetzeko programa osagarrietako zerbitzuak ematea, hargatik eragotzi gabe Enplegu eta Prestakuntza Zuzendaritzak eta Enpresen eta Ekintzailetzaren Zuzendaritzak zuzenean ematen dituztenak eta foru-aldundiek eta tokiko entitateek kudeatzen dituztenak.

e) Enpleguko lurralde-bulegoarekin koordinatuta, harreman sistematikoa ezartzea ikastetxeekin, teknologia-zentroekin, administrazioekin, sindikatuekin, enpresekin, gizarte-zerbitzuekin eta sareko lanaren bidez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari toki-mailan eginkizunak garatzen lagundu diezaioketen agente publiko edo pribatu guztiekin.

f) Enpleguko lurralde-bulegoarekin eta Enpresen eta Ekintzailetzaren Zuzendaritzarekin koordinatuta, bitartekaritza-zerbitzuak ematea eta tokiko bulegoaren lurralde-eremuan dauden enpresetan prospekzio-jarduerak egitea, egungo eta etorkizuneko lanbide-beharrak detektatzeko.

g) Informazioa eskaintzea eta laguntza ematea pertsona eta enpresei, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak eskaintzen dituen prestazio eta zerbitzuei buruz, eta, hala badagokio, organo, unitate eta erakunde eskudunetara bideratzea.

h) Pertsonak enpleguaren eta enplegu-zerbitzuen eskaera-erregistroan inskribatzea.

i) Lan-kontratuen komunikazioetan bitarteko telematikoak erabiltzeko baimenak kudeatzea.

j) Prestazioen Zuzendaritzari 19.1.d) artikuluan aurreikusitako eginkizuna betetzeko beharrezkoa den laguntza ematea.

k) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaritza-organoek eta zuzendaritza exekutiboek agintzen dizkieten bestelako eginkizunak.

4.– Tokiko enplegu-bulegoak erregistro-gaietan laguntzeko bulegoak izango dira, eta eginkizun osoak izango dituzte administrazio-prozedurei eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eskumenekoak diren gainerako izapideei dagokienez.

5.– Pertsonak beste edozein administrazio publikotako organoetara zuzentzen dituzten eskaerei, idazkiei eta komunikazioei dagokienez, Lanbideren toki-bulegoen eginkizuna dokumentazio hori jasotzea, digitalizatzea eta erregistratzea izango da; aurkezpen-data eta -ordua egiaztatzen duen ordainagiria entregatuko dute, eta, ondoren, organo eskudunei bidaliko diete, ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuaren 101.4 artikuluen c), d) eta f) letretan xedatutakoaren arabera (91/2023 Dekretua, Herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa).

6.– Tokiko enplegu-bulegoak administrazio-organoak dira, eta administrazio-ahalak baliatzen dituzte, aurreko apartatuetan aipatzen diren izaera publikoko eginkizunetan.

V. KAPITULUA

FUNTZIONAMENDU-ARAU BIDEA

26. artikulua.– Hizkuntza-araubidea.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 oinarritzko Legean aitortutako hizkuntza-eskubideak bermatzen ditu, eta Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen XIII. Tituluan, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuan eta indarrean den gainerako araudian hizkuntza-normalizazioari buruz jasotzen diren xedapenak aplikatu behar zaizkio.

27. artikulua.– Berdintasuna.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko zuzendaritza-organoek eta kudeaketa-organoek, nork bere eremu funtzionalean, bermatuko dute errespetatzen direla martxoaren 16ko 1/2023 Legegintza Dekretuaren bidez onartutako Emakume eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bateginak zuzenbide pribatuko ente publikoei ezartzen dizkieten betebeharrak.

28. artikulua.– Langileak.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoko langileen araubideak Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 99. artikuluan eta arau hauetan ezarritakoa beteko du:

a) Administrazio-kontseiluak onartzen duen lanpostu-zerrendak aplikatu egingo ditu enplegu publikoaren gaineko eskumena duen sailak zerrenda horiek oro har egiteko ezartzen dituen irizpideak. Era berean, Eusko Jaurlaritzak onartzen duen EAEko Administrazioko sektore publikoko langileen dimentsionamendura egokituko da.

Lanpostu-zerrenda onartzeko, enplegu publikoaren arloan eskumena duen sailaren nahitaezko txostena beharko da.

b) Langile lan-kontratudunei dagokienez, zuzendaritza nagusiari dagokio lanpostuak eskuratzeko, lanpostuak behin-behinean eta behin betiko betetzeko eta lanpostuz mugitzeko prozesuak deitzea, kudeatzea eta ebaztea, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen arabera.

c) Funtzionarioei dagokienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko funtzio publikoa erregulatzen duen araudia aplikatuko da.

Lehiaketa bidez lanpostuak hornitzeko prozedurak deitzea eta ebaztea funtzio publikoaren gaineko eskumena duen sailaren ardura izango da.

Zuzendaritza nagusiaren deialdiaren eta ebazpenaren bidez beteko dira izendapen askeko funtzionarioen lanpostuak, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 102. artikularekin bat etorritz.

Zuzendaritzako langileen lanpostuak betetzeko, deialdia egingo du zuzendaritza nagusiak; horretarako, administrazio-kontseiluaren adostasuna ere beharko da, zuzendaritza nagusiak proposatuta; konpetentzia profesionala eta esperientzia hartuko dira kontuan, merezimendua, gaitasuna eta publikotasuna bermatuko dituen prozedura baten bidez.

d) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egin eta kudeatuko ditu entearen aldi baterako enpleguaren lan-poltsak.

2.– Aurreko apartatuan ezarritakoak ez ditu eragotziko enplegu publikoaren gaineko eskumena duen sailaren eginkizunak eta eskumenak.

Estatutu hauetan aurreikusi gabeko gaitetan, Eusko Jaurlaritzak edo enplegu publikoaren eskumena duen sailak baliatuko ditu langileen arloko eskumenak, Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

29. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren baliabide ekonomikoak Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 98. artikuluan ezarritakoak dira.

30. artikulua.– Ondare-, kontratazio-, dirulaguntza-, aurrekontu-, zorpetze-, kontrol- eta kontabilitate-araubidea.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren ondare-, kontratazio-, dirulaguntza- eta kontrol-araubidea Enpleguaren abenduaren 21eko 15/2023 Legearen 97. artikuluan ezarritakoa da.

2.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak, kontratazio-espedienteak izapidetzen dituenean, botere esleitzailentzat ezarritako arauetara doituko du bere jardura (botere esleitzailak administrazio publikotzat jotzen dira sektore publikoko kontratuei buruzko araudiaren ondorioetarako), bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko legerian dauden kontratazioari buruzko arauetara ere (hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko kontratazioaren araubideari buruzko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan eta gainerako garapen-arauetan kontratazioari buruz jasotako arauetara).

3.– Era berean, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legean –edo hura ordeztzen duen arauan– eta arlo horretako oinarritzko arauetan ezarritakora egokituko da, eta bermatuko du dirulaguntzak emateko prozedurak ebazteko organo eskudunak ez duela haien kudeaketa esleitura izango.

Laguntzen deialdietako gastu-gehikuntzak organo eskudunak baimenduko ditu, guztizkoa kontuan hartuta. Era berean, zenbateko hori hartuko da kontuan oinarri arautzaileak eta dirulaguntzen deialdiak –eta horien ebazpenak– onartzeko organo eskuduna zein den zehazteko, salbu eta gehikuntza hori aipatutako egintzak eman ondoren gertatzen bada.

Dirulaguntzen programak onartzeak, horiek emateari buruzko ebazpenek eta, hala badagokio, horiek itzultzeari buruzkoek administrazio-ahalak baliatzea dakarte.

4.– Bere informazio ekonomiko-finantzarioa izango du, zeina Kontabilitate Plan Orokorraren irizpideekin, zuzenbide pribatuko ente publikoei buruz dagoen araudiarekin eta, hala badagokio, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak ematen dituen jarraibideekin bat etorritik lantzen baita, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitako ondorioetarako.

5.– Finantzaketa-proposamenek kredituen, abalen eta bestelako kauzioen eragiketetarako mugak ezarriko dituzte, azaroaren 8ko Euskal Autonomi Elkarteko Finantzen 8/1986 Legearen edo hura ordeztzen duen arauaren eta dagozkien aurrekontu-legeen esparruan.

Maileguak, kredituak, abalak edo bestelako bermeak edo bere helburuen zerbitzura dagoen edozein finantza-tresna kontratatzeke, Euskal Autonomia Erkidegoko zorpetzeko eta bermea emateko araubideak erregulatzen dituen araudiari eta finantzaketa-proposamenean aurrez ezarritako mugei jarraituko zaie.

31. artikulua.– Ordezkaritza eta defentsa epaiketa batean.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa epaiketa batean defendatu eta ordezkatzeko Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridiko Nagusiaren ardura da, gaia arautzen duen araudian ezarritakoaren arabera.

32. artikulua.– Merkataritza-sozietateak eta partzuergoak.

1.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak merkataritza-sozietateak sortzea proposatu ahalko du, bai eta entitate publikoek lehendik eratu dituzten beste sozietate batzuetan parte hartzea ere, eta Euskal Enplegu Sareko entitateekin partzuergoak edo bestelako elkarteak sortzea, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-zerbitzuen kudeaketa eraginkorra egiteko.

2.–Aurreko apartatuan aipatzen den proposamena Euskal Enplegu Sarearen mapa betetzearekin eta sare horren zerbitzu-zorroa hobea izatearekin justifikatuko da.

Nolanahi ere, Euskal Sektore Publikoaren maiatzaren 12ko 3/2022 Legean xedatutakoa beteko da.